



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2021eko URTARRILAREN 26an EGINDAKO
OHIKO BILKURAREN AKTA

2021eko urtarrilaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Koldobika Jauregi Zinkunegi
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Concepcion Soria Legua
Shrabani Aranzabe Pita
Unai Sorarrain Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
2. Fakturak eta ordainketak.
3. 2021 ekitaldirako udal aurrekonturen espedientearen hasierako onespena, hala bada.
4. Alkizako Beleburupe guraso elkarteak aurkezturiko, 2020 urteko diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.
5. Alkizako Beleburupe guraso elkarteak eginiko 2021ekitaldirako diru-laguntza eskaera, hala bada.
6. Alkizako Herri Eskolak aurkezturiko, 2020 urteko diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.
7. Alkizako Herri eskolak eginiko 2021ekitaldirako diru-laguntza eskaera, hala bada.
8. Alkizako udalerrian, Hernio-Gazume KBE-ko bideen erabileraren arautegiaren onespena, hala bada.
9. 2021eko udal langileen ordainsari-igoerei, EUDEL-ek eginiko gomendioaren onespena, hala bada.
10. Erretoretzeko eliz barrutiko jabegoko zatia erosteko mailegua eskatzeko baimena Gipuzkoako Foru Aldundiari egiteko onespena ematea, hala bada.
11. Beste batzuk.
12. Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHEN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 234/2020tik 239/2020ra bitarteko eta 01/2021 Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

BIGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ARGITU ASESORES	226,84
SOLRED	52,00
GASOLEOS ALKORTA	33,88
IZADI LABORATEGIA	499,49
JUAN JOSE ARREGI	476,26
DIONISIO ORMAZABAL	30,09
AKETEGI	29,80
RECAMBIOS IBARRA	39,14
HERRI OSTATUA	160,00
IBERDROLA	22,32
GOIENER	27,70
GOIENER	279,33
GOIENER	95,92
GOIENER	39,93
GOIENER	288,95
GOIENER	446,02
GOIENER	48,51
GOIENER	107,53
GOIENER	31,24
GOIENER	20,10
GOIENER	263,95
GOIENER	41,06
GOIENER	378,32
EUSKALTEL	146,53
EKILOR	7.509,45



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

OSCAR GALINDO	363,00
KEY-LAN	10,25
ARRATE IRRATIA	242,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **11.909,61** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

HIRUGARREN PUNTUA

2021 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUAREN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2021 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Alkizako Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2021eko urtarrilaren 20an egindako txostenean dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Alkizako Udaleko 2021 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 838.202,18 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

SARRERAK	838.202,18€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	63.200,00
2. Kap. Zeharkako Zergak	4.000,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	69.138,25
4. Kap. Transferentzi arruntak	336.534,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	6.110,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	109.219,93
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	250.000,00

GASTUAK	838.202,18€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	235.440,00
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	160.910,00
3. Kap. Finantza gastuak	110,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	72.348,93
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	369.293,25
7. Kap. Kapital Transferentziak	0,00
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	100,00

BIGARRENA.- 2021ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtsio eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK AURKEZTURIKO, 2020 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe Guraso Elkarteak aurkeztu duela, 2020 urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria eta dagozkion fakturak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Beleburupe Guraso Elkarteak aurkezturiko 2020 urtean emandako diru-laguntzarari dagokion zuritzea onestea.

BOSTGARREN PUNTUA

BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EGINIKO 2021 EKITALDIRAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, urtean zehar hainbat ekintza burutzen dituela. Hauen kostua finantzatzeko Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten dutelarik.

Ikusirik 2021 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidan Beleburupe Guraso elkarteari 320,00euroko diru-kopuruko laguntza aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beleburupe guraso elkarteari 320,00 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar antolatzen dituen ekintzetarako.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: 320,00 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2021 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidaren kontura.

HIRUGARRENA: Beleburupe Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI ESKOLAK AUARKEZTURIKO, 2020 URTEKO DIRU LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Herri Eskolak aurkeztu duela, 2020 urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria eta dagozkion fakturak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Alkizako Herri Eskolak aurkezturiko 2020 urtean emandako diru-laguntzarari dagokion zuritzea onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO 2021 EKITALDIRAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik, Alkizako Herri Eskolaren funtzionamendu egokia ahalbideratzeko, eginiko diru-laguntza eskaera, bertan, ikasturtean zehar egingo dituzten egitasmoen berri ematen dutelarik.

Ikusirik, Udal aurrekontuetako 481.320.00.01 kontu sailan 1.630,00 euro aurrikusi direla, Alkizako Herri Eskolarentzat.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herri eskolari 1.630,00 eurotako diru-laguntza ematea, burutu behar dituzten ekintzak finantzatzen laguntzeko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA.-1.630,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 2021 urteko Udal aurrekonturen 481.320.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Alkizako Herri eskolari jakinaraztea, **Udalak emandako diru-laguntza zuritu beharko duela, Udaletxe honetan izan dituen gastuen berri emanaz, dagozkion fakturak aurkeztuaz.**

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri Alkizako Herri Eskolari jakinaraztea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALERRIAN, HERNIO-GAZUME KBE-ko BIDEEN ERABILERAREN ARAUTEGIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Alkate jaunak prestatu duela Hernio-Gazume KBEko Alkizako udalerriko lur-eremuko bide, herribide eta pistetan ibilgailuen zirkulazioaren arautegiaren zirriborroa. Non ondorengo dioen:

“HERNIO-GAZUME KBEko bideen erabilera Alkizako udalerrian

Dokumentu honen helburua da Hernio-Gazume KBEko Alkizako udalerriko lur-eremuko bide, herribide eta pistetan ibilgailuen zirkulazioa nolakoa izan daitekeen argitzea.

Eusko Jaurlaritzaren 1/2014 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak zera adierazten du 75.3 atalean:

‘Arau-hauste larri samartzat joko dira:

c) Natura-gune babestu batean, baimendutako bideetatik kanpo eta baimendutako kasuetatik kanpo motordun ibilgailuz ibiltzea.’

Hortaz aipatu dekretua aintzat hartuta, Hernio-Gazume KBEko Alkizako udalerriko lur-eremuko bide, herribide eta pistetatik kanpo ezingo dute zirkulatu ibilgailuek. Ibilgailutzat hauek jotzen dira: bizikleta, moto, quad, auto, traktore, kamioi eta motorrez hornitutako edozein makina ibiltari.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Alkizako udalak pistatik eta bideetatik kanpo zirkulatzeko baimen bereziak eman ahal izango ditu abeltzaintzarekin edo nekazaritzarekin lotutako zereginetarako eta larrialdi-kasuetarako.

Baimena udaletxean idatziz eskatu beharko da. Udaleko ingurugiro-teknikariak baloratuko du eskaera onartzeko modukoa den eta zein erabilera-baldintza bete beharko diren zehaztuko du. Teknikariaren aldeko iritzia izango balu, alkate-dekretuz gauzatuko da. GFaren Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiari berri emango zaio.

Gogoratzea komeni da, Itxurain eta Enaizpuru arteko larretan markatuta dauden gurpil-arrastoez ez dutela biderik adierazten, hots, ez da bidea eta ez da inoiz izan. Ondorioz, hor zehar ezin da zirkulatu. Alabaina, Itxuraingo larreen berreskuratzeko prozesuan parte hartzen duten abeltzainek baimen berezi baten jabe izango dira kasu eta zeregin jakin batzuetan bakarrik usatu ahal izango dutena. Baimen hori eguneroko ohiko lanetarako ezingo dute erabili. Kasu eta zeregin berezitat hauek jotzen dira: istripuak, hildako buruak erretiratzea, gaixotutako buruak artatzea edo erretiratzea eta jarduerarako beharrezkoa den materialen bat Enaizpuru aldera garraiatu behar izatea, ur-aska bat esaterako.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Hernio-Gazume KBEko Alkizako udalerriko lur-eremuko bide, herribide eta pistetan ibilgailuen zirkulazioaren arautegiaren onespena.

BIGARRENA: Erabaki honen berri herritarrei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

**2021EKO UDAL LANGILEEN ORDAINSARI-IGOEREI, EUDEL-ek
EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

“ 2021eko ordainsari-igoerei buruzko informazio-zirkularra

Joan den 2020/12/31n, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legea argitaratu zen BOEn.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.

(..)Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneousotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2020koen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.

Aurrekoa ikusita, abenduaren 30eko 11/2020 Legea indarrean sartu ondoren, eta Eudelek aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzen da euskal udalei honako hau egitea:

GOMENDIOA

11/2020 Legearen 18 Bi artikulua edukiari dagokionez, Eudelek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 0,9, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokionez, homogeneousotasuna mantenduz.

Gomendio horren bidez, Eudelek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, eta horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berri bat lortu ahal izateko.

Era berean, EUDELEK berretsi du garrantzitsua dela "UDALHITZ 2008-2010 Akordioa" bere terminoetan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean baitago haren berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio du. Ildo horretan, gaur egungo UDALHITZ 2008-2010 betetzeak izan ditzakeen hutsuneak konpontzeko tresnak, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako "jarraipen-mahaiak" izan beharko luke. Gogorarazten dizuegu mahai hauen xedea dela, soil-soilik, egungo UDALHITZ

2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen balizko ez-betetze puntualak konpontzeko akordioak erraztea, eta ez dutela ireki behar kanpoko gaietara buruzko edozein negoziazio-prozesu, zeinaren aplikazio-eremua EUDELEN eta sindikatuen arteko UDALHITZ Negoziazio Mahai Orokorrean dagoen."



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2021 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioa bere osotasunean onestea eta aplikatzea.

BIGARRENA: Erabaki hau, otsaileko nominan aplikatzen hastea, eta urtarrilari dagozkion atzerapenak ordaintzea.

HAMARGARREN PUNTUA

ERRETORETXEKO ELIZ BARRUTIKO JABEGOKO ZATIA EROSTEKO MAILEGUA ESKATZEKO BAIMENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI EGITEKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusita, 2021 urtean, Alkizako Udalak Erretoretxeke eliz barrutiko jabegoko zatia erosteko asmoa duela. Horrela aurrikusi da 2021urterako Alkizako Udalak onartu duen aurrekontuan. Erosketa hau egin ahal izateko mailegu bat eskatu beharko du Alkizako Udalak.

Ikusita, Alkizako Udalak mailegua eskatu ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena behar duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkizako Udalak, Erretoretxeke eliz barrutiko jabegoko zatia erosteko beharrezkoa duen mailegua eskatu eta onartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena eskaera egiteko onespena ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

11.1. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2021EKO 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2021 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 12.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Gizarte zerbitzuak: 9.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 12.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2021 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko udal aurrekontuetako "421.230.00.01 eta 421.330.00.01" kontu sailaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 9.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

BIGARRENA.- 12.000,00 eurotako gastua onartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakariorde Jaunak bilkura 20.20-etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela aste duena.

